

Idrissa Dialloren birjaiotza

2012ko Errege Gaua zen, gau hotza, alabaina, historia honetako protagonista ez zuen inolako oparirik jaso. Hogeita bat urteko Idrissa Diallo Bartzelonako Atzerritarrentzako Barnetegian (CIE delakoa) heriorekin topo egin zuen. Espainiako Polizia Nazionalaren zaintzapean zegoen. Gizarte kolektiboek eta babes-erakundeek gertatua argitzea eskatu zuten arren, heriotza ez da egundo argitu.

Albisteak haserre bizia eragin zuen jende anitzengan, eta horrek *Tanquem els CIE* plataforma sortu ahal izateko bidea zabaldu zuen. Harrezkero, Espainiako Estatuko mugetan migrariak geldiarazteko ezarritako kontrol eta dispositiboen aurkako borroka nekaezina egin du plataforma horrek.

Idrissaren heriotzaren osteko hilabeteetan, gertaeraren ardura zuen epaitegiak bertan behera utzi zuen prozedura; ez zuen ikerketan sakondu ez arduradunei espedienterik ireki. Haatik, ez zuten Idrissa ahanztaraztea lortu, ezta Europa gotorleku bidegabe honek egunero hiltzen duen pertsona guretako bat dela aldarrikatzeko gogoia kendu ere.

2014ko amaieran, ikus-entzunezko Metromuster kooperatibak –garai hartan, *Ciutat Morta* dokumentalaren bitartez ekaitz politiko eta mediatiko itzela eragin zuena– proiektu zinematografiko berri bati ekin zion *Tanquem els CIE* eta *La Directa*-rekin batera. Lau urteren ondoren, *Idrissa, crónica de una muerte cualquiera* filma estrainatu da.

Kataluniako Mediku Institutu Legalean sei hilabetez egon ondoren, Idrissaren gorpua Montjuiceko (Bartzelona) hilerriko izengabeko nitxo batean sartu zuten, hots, ongintza moduko lurperatze bat eman zitzaion. Espainiako agintariek ez zioten haren familiari inolako informaziorik eman, eta euren legearen betebeharrak saihestu zituzten.



David Bou

LA DIRECTA-KO KAZETARIA

@dvdbou

Nomen nescio-ren latinezko adierazpidearen akronimoa NN da. Sigla horiek, ikusi batez, gaitzik gabekoak dirudite, alta bada, bortxakeriaren seinale dira. Izan ere, historikoki izen gabeko pertsona sailkatzeko erabili izan dira: “Izen gabea”

Dokumentala filmatzeko ardura zuen taldeak –ikerketa lan eskerga batek akuilatuta– Maliko Tindila herri mugakideraino bidaiatu zuen, Diallo familiarekin elkartu zen eta gertatuaren berri eman zion. Ondoren, izengabeko nitxoak aurkitu genuen eta Idrissaren gorpuzkinak aberriratzeko izapideak betetzeari ekin genion, finean, bera jaio zen lurrean toki hartu zezan. Kostuak finantzatzeko 10.000 euro bildu ondoren –crowdfunding-en bidez–, erreparazio edo ordain moduko keinu kolektiboa gauzatu genuen. Azkenik, haren komunitateak Idrissa ehortsu ahal izan zuen; hil ondorengo sei urtera.

Nomen nescio-ren latinezko adierazpidearen akronimoa NN da. Sigla horiek, ikusi batez, gaitzik gabekoak dirudite, alta bada, bortxakeriaren seinale dira. Izan ere, historikoki izen gabeko pertsona sailkatzeko erabili izan dira: “Izen gabea”. Nazismoak *Nacht und Nebel* (gaua eta lainoa) dekretuaren bidez berreskuratu zituen NN siglak. Wagnerren konposizio baten titulua da, Hitlerrek ohoratua eta hainbat emakume preso politikoren sintonia makabroa bihurtu zena. Nazien sarraski jasangaitzen praktikek NN kategoriazioa izan zuten.

Hego Ameriketako Kondor operazioan parte hartu zuten diktadurek desagerarazi zituzten pertsonak, terminologia horrekin identifikatu zituen CIAk: *No Name* (NN). Gaur egun, horietako asko itsas hondaletan daude, izenik gabe, identitatea ezabatuta. 2017an –urte bakarrean– Mediterraneoan bizia laga zuten 3.000 migrariak bezala; horien artean daude ere Andaluziako itsasertzeko hilerrietan lurperatuak.

Idrissa Diallo “izen gabeko” pertsona zen gaur arte, eta halakoxeak dira egun, atzerritar legearen biktimak. Espainiako Estatuak horiei guztiei euren eskubideak kendu eta giza kondizioa ukatzen dizkie. Pertsona horiek ez dute gainerako guztiok dauzkagun eskubide berberak, eta egoera erdeinagarri batera bultzatzen ditu. Euren historia hutsaren hurrengo heriotza baten kronika da, beren iragan kolonialistaren arrastoa bizirik mantentzen duten mendebaldeko gizarteentzat, migrariena balore gabeko bizitza da. Hala eta guztiz ere, euren izenak ez dira ahanzturan geratuko. Idrissaren bezalako historiak, berarek egunero posible egiten dituzten kontzientzian ozenki jo behar du. Idrissa Diallo izenak beste leku batera begiratzeko jaidura aldatu behar digu, gure ardura ere den sufrimendua geure egin dezagun. Idrissak bizirik darrai, borroka ere bai! ■